

ALKATE DEKRETUA

2025eko urtarilaren 29an Ibarra Merkatari Elkarteak, bertako koordinatzailearen bitartez, 2025eko ekitaldiari dagokion dirulaguntza izenduna eskatu dio Ibarra Udalari, urte osoan zehar antolatzea aurreikusten dituzten ekintzak gauzatu ahal izateko.

Kontuan hartuta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariaren txostena non jasotzen den 1 08.431.00.481.01 2025 aurrekontu partidan 10.000 euroko zenbatekoa erabilgarri dagoela merkatarari elkarteari dirulaguntza ematearen kontzeptupean.

Kontuan hartuta idazkariaren txostena.

Kontuan hartuta kontuhartzailearen txostena.

Ondorioz, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 24. artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41. artikulua arabera esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA. Onartzea Ibarra Merkatari Elkarteari 10.000 €-ko dirulaguntza ematea, 2025 ekitaldian aurreikusten dituzten ekintzak gauzatzeko.

BIGARRENA. Zenbateko hori 1 08.431.00.481.01 2025 aurrekontu partidatik bideratzea.

HIRUGARRENA. Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

LAUGARRENA. Ebazpen honen berri hurrengo Udalbatzan ematea.

Ibarra, 2025eko maiatzaren 6an

Alkateordea
Nekane Lazkano Prieto



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025WDI10001-Dekretua_OR/Decreto_GE (IBARRAKO MERKATARIEN ELKARTEA)